

Anaitasuna

III URTEA—N. 31

Suplemento a la Hoja
ANAITASUNA de Guipúzcoa

Zezeilla (2) 1.956

GAURKO KRISTIÑAUAK, ZER?

«Aspaldiko denporea, oraingoa baiño obea». Sarritan entzuten dogu esakune au.

Esakune guztien antzera, onek be egiazko mamia daria bere barruan. Orain berrogetamar urte —zetan esan be ez—obeak zirean gure errietako ekanduak. Ordurik onakoan, oitura beneragarri asko galdu dira gure artean. Esan daie la, bestela, Bermeoko arrantzaleak. Gernika aldeko gurasoak, beste leku askotako euskaldun jatorrak.

Beñiolako gazteak ez zirean oraingoa baizen urtenak. Matrimonio bizitzea ez egoan oraingo beste ustelduta.

Nun ete dago diferentzia onen sustraia? Zeintzuk ete dira aldakuntza onen kausak?

Duda barik, beste kausa askoren artean auxe da printzipalenetarikoak: **Gaurko egunean bildurra galdu deusagu pekatuari, ukatu gura dogu antza pekatuaren existentzia, gauza bidezkoa ta naturala baillitza agertzen jaku pekatua.**

Uste dogun baiño zabalago dabil gure artean pentsaketa oker au, batez-bere negozio ta sexu gauzetan.

Baiña zek sortu erazo dau gure errian mentalidade barri au? Sexu gauzetan beñik bein, ziñea izan da eragillerik beñiena.

Ziñeak, geldiro geldiro, bere edertasun zoragarriagaz eta modernismoaren atxakiagaz menperatu egin gaitu, gure kristiñau kontzientzia moteldu egin deusku

eta beste idea ta oitura nasaiagoak gure artean erein ditu.


Gauzak olan direala, ezin daikegu begiak itxi eta okerkeriari berak gura dauena egiten laga. Eleiza Katolika arduratsu dabil aspalditik arlo onetan, eta ondo konturatuten da bere erantzunbear aundiagaz. Ori dala-ta, oraindiño orain Ziñezko Informaziño Aste bat ospatu dau Barcelonan.

Baiña Eleizearen alegin guztiak alperrekoak izango dira, guk geuk —erriko kristiñauok— baktzak bere lekuan Areri lagunduten ez badeutsagu. Ez deusku Eleizeak eskatuten ziñera joan ez gaitzean, ez. Alde txar asko eukiarren, beste on asko daukoz zazpigarren arteak. Gitxienez, jakin egin bear dogu nun dagoan alde ona eta nun itxusia, geure burua ez engañetako eta proximoari bide zuzena erakusteko. Orretarako, gure kristiñau nortasuna sendotu egin bear dogu, gure barruko indarra geilagotu, emoziozko bizitzea kontrolatu, peligruari jarkiten saiatu.

Taiu onetako kristiñauak gero ta geiago ikusten dira gure artean. Peligruaren aurrean, ikasi egin dabe benetako kristiñauak izaten: zurrak, zindoak, kriteriodunak. Orregaitik, gaurko kristiñauak, numeruan ez bada, kalidadean beñik bein, lengoak baiño obeak dira.

Izan gaitzean euren artekoak, eta lagundu deiogun Eleizeari bere asmo ta egingizunetan.

Baktzak, illean bein, Anaitasuna-ren suskritore bakar bat egin ezkeru, indar aundia artuko dogu euskerearen alde.



ARANTZAZUKO AMAREN OMENEZ EUSKAL-SARIKETEKA

Arantzazuko Urtea dala ta, bertako prantziskanuak euskal-sariketa bat prestau dabe. Ona emen gaiak:

1) Arantzazuko Amari euskal-poesi bat. Berrogetamar bertso euki bear ditu gitxienez. Bi sari egongo dira gai onetan: Lenengoa 1.000 pesetako, eta bigarrena 500'ekoa.

2) Arantzazuren gainean egiñeko lan bat, prosazkoa, itz-lauzkoa. Edozein modutakoa, nai jazoriko mirarien bat edo beste jozoeraren bat, nai norberak asmauriko arte-lan bat. Lan au, saritua izateko, edozein euskal-aldizkari edo orritan argitaratu bear da: "Arantzazu'n", "Anaitasuna'n", Donostiko "Egan"en, Aita Kaputxinoen "Zeruko Argia"n, Bidasoaz arantzako "Herria" edo "Gure Herria"n, "Euzko Gogoa"n, edo beste edozeinetan. Bi sari emen be: lenengoa 1.000 pesetako, eta bigarrena 500'ekoa.

3) Arantzazuko Amaren gainean egiñeko euskal-teatro lan bat; iru ekitalditakoa. Eskrihitzailleak gura dauen eran, bertsoetan edo prosaz. 5.000 pesetako sari bakarra.

Oarrak:

1) Beti lez, lan bakotxat lema bat eroan bear dau. Idazleak euren izena sobre txiki batean gordeta ipini bear dabe ta sobre orren gainean lanaren lemea. Sobre txiki ori beste aundiago batean sartuta bialdu bear da, lanagaz batera.

2) Lanak, aurtengo agustuaren 15' garreneraino bialdu leitekez. Egun orretan botaten direanak be balio dabe.

3) Sariketa onetako lanak erabagi ta saritu bear dabezanen izenak, bere tertzioan jakinerazoko doguz. Baita sariak noiz eta zelan emongo direan be.

4) Bigarren gaiko lanak bialtorduan, non eta noiz argitaratu direan adierazo bear da.

5) Lan guztiak zuzenbide onetara bialdu bear dira: R. P. Director de "Arantzazu", Santuario de Arantzazu, ONATE (Guipuzcoa), euskal sariketarako direala adierazorik.

Arantzazuko Urtea, 1.955-1.956.

Vaticano.—Igazko urtean, Aita Santu Pio Amabigarrenak 59 berbaldi egin ditu, eta 370.000 personari emon deutse audientzia. Berbaldi orreetarik 25 italianoz izan dira, 22 frantsesez, 6 ingeleraz, 5 erderaz eta 1 portugezaz. Igazko urtean Aita Santua bisitatu dabon gizon ospetsuen artean aurkituten dira Holandako Bernardo Printzipea, John Foster Dulles, Ipar-Amerikako estaduko sekretarioa, Giovanni Gronchi, Italiako Presidentea, eta Jawaharlal Nehru, Indiako lenengo ministroa.

Barcelona.—Igaro dan urtarrillean, Ziñezko Informaziño Aste bat organizatu dabe Aita Claretianoak. Importantzia aundikoa izan da, batzarrera joan direan personakaitik eta bertan erabili direan temakaitik. Beste gauza askoren artean, amaika urterik amabost urterako neska-mutikoen ziñezaletasuna estudiatu zan. Ona emen, problema orren gainean irakurri direan konklusioak:

Lenengoa. Edade orratan Barcelonako neska-mutikoen artean, 100'eko 97 joaten dira ziñera asteen bein gitxienez.

Bigarrena. Euneko 45 joaten dira asteen birritan edo geiagotan.

Irugarrena. Aurtengo ikastaroan, 100'eko 86 joan dira eurentzat galerazota dagozan pelikulak ikustera.

«Argitasun oneek —diñoe batzarkideak— garbi adierazoten dabe, neska-mutikoen ziñe problema au guztiz gogoangarria dala, bere astuntasun eta zabaltasunagaitik.

Orrezaz gainera kontuan euki bear da, gazte-txuentzat permitiduta dagozan pelikulak eurak be, sarri askotan egokiak izaten ez direala».

Rusia.—Agintari sovietikoak jakin gura izan dabe zelan dagoan Rusian erlegiñoa. Euren deklaraziñoak egiazkoak badira, oraindiño 100'eko 70 rusiarrek siñistuten dabe Jainkoagan.

Alan ta guztiz-bere, U. N. O. deritxon Batzarrean Rusiako Delegaduak beera bota dau Ipar-Amerikako errepresentatzailearen eskabidea. Eskabide orretan eskatuten zan, Naziño Alkartuen sesiño guztiak oraziño bategaz asi eitezala.



Jesukristoren Zirkuntziziñoa

Jesus, Maria ta Josek egun batzuk bakarrik egin zituen erri ondoko koban. Belenera etorririko kanpotarrak, Erroma-ko Emperadorearen agindua beteta gero, euren errietara biurtu zirean, eta gauza erreza izan jaken Maria ta Joseri etxe utsen bat errian aurkitutea. Araxe joan zirean biziten irurak. Aste batzuk geroago, araxe etorri zirean Orienteko Magoak judeguren errege jaio-barria adoretan. Eta antxe zirkuntzidatua izan zan Jesus Umea jaio ta zortzigarren egunean.

Zer da zirkuntziziñoa? Gorputzeko marka bat, judegu erlegiñoaren agiriko seiñalea. Gorputzeko marka orren bitartez, judegu umeak Sinai mendiko erlegiñoan sartzen zirean, bateoaren bitartez gure umeak kristiñau erlegiñoan sartzen direan antzera. Arrezkero judeguak Jainkoaren lege guztiak gorde bear zituen, eta orren orde z Jainkoak zoriona emongo eutsen mundu onetan eta bestean. Kontratu auxe egin eban Jainkoak judeguakaz Sinai mendian. Kontratu orren zertifikadua da zirkuntziziñoa.

Eta zelan egiten da gorputzeko marka ori? Jaiotzatik zortzigarren egunean, gizon- ezko umeari gorputzeko parterik delikaduenean narru zati bat ebagiten jako kutxillo bategaz. Operaziño mingarria ta odoltsua. Operaziño orrexeri deituten jako zirkuntziziñoa, euskera zarrean erdaintzuntzea.

Zirkuntziziñoa etxean egiten zan, eta geienetan umearen aita izaten zan operatzailea, lantzean bein ama. San Jose izan zan aurki Jesus Umea zirkuntzidatu ebana. Zirkuntziziño bitartean, amar testiguren aurrean, eta umea dolorearen doloreagaz negarrez egoala, auxe esaten eban zirkuntzidatzaileak: «Bedeindatua izan bedi

Jainkoa. Berak santifikatu gaitu amaren sabeletik eta berak eskribidu dau bere legea gure aragian. Berak emon deusku gure erlegiñoaren seiñalea eta emongo deuskuz Abraham gure gurasoaren bedein-kaziñoak». Eta danak erantzuten eben: «Zorionekoa, Jainkoak semetzat artu dauena!» Zirkuntziziñoako zauriak kalenturea emoten eutsan umeari, eta ardao ta orio-agaz osatuten zan.

Zirkuntzidatuta gero, izena ipinten jakon umeari. Kasu onetan, Mariak eta Josek ba-dakie ze izen ipiñi, biori Aingeruak aurretiaz jakin eragin eutsenda. Arrezkero, **JESUS** izango da Mariaren semearen izena. Jesus, izen guztiz egokia, misteriozko esangurea daukona. Izen onek, hebreo berbetan, **Jainkoaren Salbaziñoa** esan gura dau. Ain zuzen-bere, orrexetarako, gizonak salbetako, etorri zan Jesus mundu onetara.

KRISTIÑAU IRAKURLE

IRAKURRI EVANGELIO SANTUA

Irakurri Testamentu Barria

Bertan aurkituko dozuz Jesukristoren Barri Ona eta Apostoluen Eskriturak.

Madril'eko La Editorial Católica'k argitaratu ditu liburu santuok merke merke eta aldean erroteko moduan.

Eskatu zeure Abade Jaunari, edo Bilbaoko liburu saltzaileeri, edo Madril'eko La Editoriak Católica'ri (Alfonso XI, 4. Madrid).




Ona emen prezioak:

Nuevo Testamento, edición de bolsillo (lau Evangelioak eta Apostoluen Eskriturak), 16 peseta.






Los cuatro Evangelios, edición de bolsillo, 9 peseta.



MUTIKO BIREN OKERKERIAK.



FELIS KATUA.



ETA ZUK?

-¡Bai dala poema ederra Orixe-ren Euskaldu-
nak!

- Itzel ederra.
- Leidu dozu?
- Ez. ¿Eta zuk?
- Ba... nik bez.

EZTA GUZURRA. -Erdi analfabetoa izan arren
eskribietan dauenagaz bizi dan bat dago. Ezta guzu-
rra, gero. Familiari eskribietan deustoz kartak diru
eske.

IA, IKUSI DAIGUN. -Semeak nota txarra
atera dau eskolan eta ori dala ta, bere aitak arit-
metikako ikaskai bat irakatsi gura deustoz.

-Ia, ikusi daigun -dinotso -sei laranja badeuko-
zuz eta beste bi geitu, zeinbat laranja eukiko dozuz?

-Eztakit -erantzuten deustoz umeak - eskolan
sagararakaz kontetan dogu.

Psikologu bat, dakiguzan gauzak esaten deus-
kuzan jaun bat da, baina entendietan eztoguzan
berbakaz.

ZE EDERRA! -Etxeko jaunak konbidadueri:

-Ikusten dozue koñak botilla au? irurogeta
amabost urte ditu.

Konbidadu batek:

-¡Ze ederra izango dan!

Etxeko jaunak:

-Eta datorren urtean irurogeta amasei eukiko
ditu.

ERANTZUNA.

-¿Nor da zekena?

-Munduan pobre bizi gura deustoz, aberats
ilteko.

EUSKALDUNTASUNA

Humanismuz heteriko berbea dogu. Urteak zear, oso antigualetik gure gurasoen gurasoak zentzuna ta indarra emonekoa, guganañño eldu direan arrastoak —sozial bizimodu eta oiturak— kutsatua. Izen au munduan zear asko zabaldutan, emigratzen eben euskaldunen prestutasun, fintasun ta lanerako doaia zala ta. Gaur egunean be irauten dau izen onek, batez bere Ameriketara. Iparragirre-k be ezaban aitzu izen au ta sekulako bertsoak kantau eutsozan, Gernikako arbola sinbolotzat arturik. «Eman da zabal zazu munduan frutua» dogu fraserik ezagunenetakoa. Emon dau, emon be, munduan frutua; baiña bere burua aitzu dau. Urte gaiztoetan, idea ta espiritu batetik ernegaziñoa errez sortzen da, eta euskaldunok be bide ori daroagu.

Buruko itza kuanismuz bete dala esan dot. Humanismu ori, oster, gure berbeteak bere itzetan eta esakeretan daroa; gure bizimodu ta oiturak adierazoteko gaitu dau gure izkuntza denporeak; denporearen bidean, ixilean jazo direanak eta ez tireanak be, mugatu dabe. Erri guztiak daukie sustraiturik moral bat, oiturazko moral bat; zerbaitera usauta dagoz. Gure errian kristautasunarenak kabi ederra izan dau eta asko kutsatu. Erriaren formaziñoa erlegiñño gaitan sakona izan ezarren eta askotan azalean egon, moralak kabi beroa egin dau eta Euskalerrriak izan dauen bizimodua argi informatu.

Berbeteagaz batera valore guzti oneik joakuz. Eutsi daiguzan mugatzen dituen berbetearen bidez, eta au geroago ta geiago gaitu, humanismu ori adaptatu daiten gaurko egokerara. Ori da orain gure eginbearra, Iparragirre-k esan eban lez, gure erriak munduan zabalduten segidu daien frutua, bearrian gorrian dagoen munduan.

Esan eban antxiña, Dechepare-k, lenengo euskal eskribitzaile entzute aundiakoak:

«Heuskaldunak mundu orotan preziatu ziraden
Bana haien lengoagiaz berze oro burlatzen
Zeren ez ein skripturan erideiten ezpaitzen
Orai dute ikasiren nola gauza hona zen».

Errezago bizkaitarrentzat:

Euskaldunak mundu guztietan preziatu zirean
Baiña onein berbeteaz beste guztiak burletan
Ze ezeia eskrituran etzan topetan
Orain ikasiko dabe zelan gauza ona zan.

Gure gogo oneri eusteko bear direan bide guztiak erabili gura doguz, eta apurka apurka konsegidu arte ekin bear deusagu [gogoz eta bete betean, orretarako eskubidea, au da, espirituz izan garean eta garean lakoak aurrerantzean be izateko gogoa, iñok be ezin kendu leigu ta.

Iztun.

SOLUZIÑO BILLA EKITEN BADEUTSAZU
ZURE BURUA LANDUKO DOZU ETA ZUR-
EGINGO. GAIÑERA, IGARRI EZKERO, BE-
RROGETAMAR PESETA IRABAZI ZEINKEZ.

Iru gizonak errege bat il gura izan eben, eta, egin baiño len, onek arrapau egin zituen. Erregearen urteburua zan eta umore onez egoan ezker, bateri hizia parkatzea erabagi eban. Eurretarik bat elegietako onako au burutatu jakon:

Iru sonbreru zuri eta bi baltz erakutsi eutsezan eta sala batean sartu, illunpetan. Bakoitzari bat ipiñi eutson, eta enparauak kaxan gorde. Zelango kolorea eukan bere sonbreruak igarten ebanari parkatuko eutson hizia.

Argia ixitu ta bakoitzak sonbreru zuri bi ikusten zituen besteen buruan. Alango baten bat altzetan da eta badiño:

—Nirea zuria da.

¿Zer pentsau eban onek berea zuria zala jakiteko?

Igarten dabenen artean berrogetamar pesetako bat sorteatuko da. Soluziñoak: Anaitasuna —Ribera, 6—Bilbao, Aprilleko 20'arte. Derrigorrezkoa da euskeraz idaztea soluziñoa eta karte, konkurso onetan sartu gura bada. Erreztasunezagaitik ondo eskribidu ezarren be, oso begi onez ikusiko da.

Euskaldunak, Euskalerritik urtetan dauenean, edonon ditu ateak zabalik.

IBILTALDI ZENTZUN BAKOIA

Asko bai asko bizi dira oraindiño munduan, kristiñauak ez direanak. Enren ustez, Jesukristo gizon aundi bat da. Eurak ez dabe ukatuten Nazareth'eko gaztearen existentzia, ez. Burua naikoa dauke, historiaren kontra ez joateko. Baiña alan ta guttiz bere, euren eritxiz Jesukristo, ain aundia ta arrigarria izanarren, gizon utsa da: besterik ez.

Beste aldetik, kristiñau askorentzako—praktikan beinik bein—Jesukristo, Jainko utsa da: orixe bakarrik. Baiña au be, ez da egia osoa: Ba-dakigu Jesukristo Jainkoa dana. Bere milagru arrigarrien bitartez, ondo baiño obeto probatu eban bere Jainkotasuna. Baiña orrezaz gaiñera, Jerukristo gizona da. Bere bizitzan, aparteko ardurea euki eban, bere gizatasuna erakusteko. Ori dala-ta bere buruari GIZONA — besterik ez—deituten eutsan.

Gauza guztiz ona egiten dogu, Jesukristorj Jainkoa dan aldetik begiratuten deutsalanean. Baiña sarri askotan, provetxu geiago atarako geunke, gizona dan aldetik begiratuko bageuntsa.

Berak esan dau:

"Biozbera ta humilla naiz. Zatoze, ta ikasi nigandik".

"Aurretik emon deutsal exemplua, zeuek be neure antzera egin daizuen".

"Alkar maite eizue, neuk maite izan zaitue-dan legez".

San Frantzisko Asiskoak, bere indar guztia-kaz imitatu eban Jesukristo, Jainko gizon egiña. Guk barriz, bear dan bestean ez dogu kontuan artzen Jesukristo gizona dala; eta orregaitik

sarri askotan gure maitasuna, gauza konkreturik bere aurean euki ezean, utsa da, mamin bakoa da, epela da, teorikoa da. Maite daigun Jesukristo gure Jainkoa, gizona dan aldetik, berak maite izan ginduzan legez.

Baiña orretarako, ezagatu egin bear dogu. Evangelioak erakusten deusku Jesus nor dan. Beste liburu guztien aurretik leidu bear geunke Evangelioa. Jesusek berak gutariko bakotxari bialdu deuskun karta bat lez irakurri bear geunke.


Evangelioan (eta Apostoluen Epistoletan), erlegiño osoa aurkituten da. Beste liburu guztiak, gauza gitxi dira Evangelioaren aldean.

Ori dala-ta, mesedez eskatuten deusut, irakurle euskaldun, lenengo lenengo Evangelioa irakurteko. Ez zaitetz kontentatu domeketako Evangelioa irakurriaz. Itxi eizuz beste liburu guztiak, eta irakurri Evangelio osoa. Naiago ete dozuz gizonen explikaziñoak, Jesukristoren beraren herbak baiño? Ez orixe!

Bestela, Klaudioren antzekoa izango ziñake. Klaudiok, Alpe mendiak ezagutu gura izan zituan. Orretarako, trenan artu eban, eta gero funikularra. Biaja guztian, Alpe mendietako tarjeta postalak eta fotografiak ikusten joan zan. Bertara elduta koan, sartu zan hotelean, egon zan pitin baten leiotik kanpora begiratuten, eta beingoan asi zan barriro bere fotografiak eta tarjetak estudiantan. Gero, beste barik, bere errira biurtu zan.

Zuk, bearbada, barre egingo dozu. Baiña gure artean, asko dira Klaudioren antzekoak. Jesukristo ezagutu gura dabe; eta orretarako, Evangelioaren ordez, osterantzeko liburuak irakurten asten dira.

Zuk beinik bein, irakurri osterata osterata Jainkoak bialduten deusun karta eder au: Jesukristoren EVANGELIOA.



POPEYE MARINELA.

ZEGAITIK ERZEUSKUZUZ
HELAU BATZUK EROS-
TEN BRUNO-RI TA
BIORI?

EZ!!

EZETZ??

EZETZ!!

BURUZURI,
BARIETZ BAT
GURA DOGU..

BAI,
BARIETZ BAT
GURA DOGU.

POPEYE, ENTZUN;
NIK SEI SAGAR BA-
NEUKOZ ETA NOR-
BAITEK SEI LA-
RANJA EMON...
¿ZEINBAT SA-
GAR EUKIKO
NEUKEZ?

LEN LEZ, SEI
SAGAR BAIÑO
EZEUNKEZ
EUKIKO.

ORI OLAN
IZAN LEITE-
KE; BAIÑA EZ-
TIRUDI.

ENTZUN; NIK SEI
SAGAR BANEUKOZ
ETA NORBAITEK
SEI LARANJA EMON...
¿ZEINBAT SAGAR
EUKIKO NEUKEZ?

SEI
SAGAR...

ETA NIK
SEI SAGAR BA-
NEUKOZ ETA
NORBAITEK
SEI MELOKOTOI
EMON?... ¿ZEIN-
BAT SAGAR
EUKIKO
NEUKEZ?

ERANTZUNA,
LENGO MO-
DUAN, SEI
SAGAR DA.

¿SEI MELOI URTSU?

¿LIMOIAK!

¿KEREIXAK?

(MELOKOTOIAK) (LARANJAK)
MELOI URTSUAK (OKARANAK)
LIMOIAK

EZIN LEI-
TEKEZ AL-
KARREGAZ
SUMAJ.

¿ZEIN
ZEINKE-
LA DI-
NOZU?

ETA NIK SEI
SAGAR BANEU-
KOZ ETA NOR-
BAITEK SEI
PIÑA EMON...

¿PIÑAK DIÑOZU?

NIK USTE NEBAN
ZUK ETA BRUNO-K
GURA ZENDUENA
MANTEKAVA
ZALA.

PIÑEA.

¿PIÑEA?

PIÑEA.

TOM SIMS